

FARO DE PLATA



Irteera: Pasai San Pedro

Helmuga: Pasai San Pedro

Luzeera: 7,5 Km

Nola heldu: Donostiatik abiatuta, Pasaiako portura eta San Pedro auzora joango gara, Ategorrietako etorbidean zehar, Gros auzotik abiatuta (1 nazionala).

San Pedroko ontziralekutik irten eta herriko atzealderantz ibiliko gara. Bertan GR 121 bidea dago, hilerriaren ondoan. Bidezidorretik gora goazela errepide bat aurkituko dugu eta, handik goitik, Pasaiako portuaren bokalea ikus daiteke.

Hortik aurrera, errepidean zehar egingo dugu gora, itsasargi distiratsura heldu arte. Ibilbideari eutsi nahi diotenez ezkerreko bidetik jarraitu beharko dute. Hango parajea eder eta basatia da. Bidezidorra ez da aldapatsua hasierako tartean, eta iturri baten ondotik igarotzen da. Bertako auzotarrek oso preziatzen dute iturri hori. Azkenik, bidea Murgitako badiara iristen da, eta zidor batetik jaitsi gaitezke bertara.

Behin errepidean gaudela, gomendagarria da Mendiola sagardotegian atsedaldia egitea (He-

rri Ametza ikastolaren atzean dago), indarrak berreskuratzeko itsasargira itzuli aurretik. Itzultzeko bidea sagardotegik bertatik abiatzen da eta, hortik joanda, laster agertuko dira harkaitz berezi horiek, higadurak moldatu eta begi eta zuloak sorrarazi dizkienak.

Ondoren, ibilbidea Almirantearen gotorlekuaren alboan igarotzen da. Itxura denez, ingelesak inguru hauetatik ibiltzen zireneko eraikina da. Azkenik, bideak bat egiten du itsasargira doan errepidearekin. **F**